

Iruñean, bi mila eta hemezortziko martxoaren 14an.

### BILDURIK

Alde batetik, Ainhoa Aznárez Igarza andrea, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria,

Eta, bestetik, Andres Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua.

Bi aldeek, elkarri gaitasuna eta daukaten ordezkaritza aitortuta,

### HONAKOA ADIERAZTEN DUTE:

**LEHENA:** Nafarroako Parlamentuak eta Euskaltzaindiak parlamentu-lexikoaren bateratze-lana egiteko lankidetzeta-hitzarmena izenpetu zuten, 2015eko urtarrilaren 21ean. Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar nagusiek ere parte hartu zuten lan horretan.

2015. urtean izenpeturiko lankidetzeta-hitzarmen hori orain eguneratu nahi da.

**BIGARRENA:** Euskaltzaindiak zenbait egitasmo abian jarri edo sustatu nahi ditu, beste ganbera legegile, unibertsitate eta erakundeekin lankidetzan. Batetik, Frantziako Akitania Berrian, Nafarroako Parlamentuan, Eusko Legebiltzarrean eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar nagusietan gorde diren antzinako euskarazko testu juridikoen erakusketa ibiltaria antolatu nahi du. Bestetik, izaera lexicografikoko euskarazko "Hiztegi Juridikoa" ondu nahi du. Azkenik, Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, zenbait egitasmo partekatu nahi ditu, sorreran parte hartu zuten erakundeekin batera eta, erakunde horien bilakaeraren ondorioz, sortu direnekin batera.

**HIRUGARRENA:** Nafarroako Parlamentuak euskarazko testu juridikoen funts dokumental historikoa dauka, zeina gizarteratzeko eta herritarrek ikusteko moduan jar daitekeen.



En Pamplona, a 14 de marzo de dos mil dieciocho.

### REUNIDOS

Por una parte, doña Ainhoa Aznárez Igarza, Presidenta del Parlamento de Navarra,

Y por otra parte, don Andres Urrutia Badiola, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad y representación que ostentan y

### DECLARAN LO SIGUIENTE:

**PRIMERO:** El Parlamento de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia firmaron el 21 de enero de 2015 un convenio de colaboración con el objetivo unificar el léxico parlamentario. También participaron en dicho trabajo el Parlamento Vasco y las Juntas Generales de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia.

Ahora se pretende actualizar el mencionado convenio de colaboración de 2015.

**SEGUNDO:** La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia quiere poner en marcha e impulsar diversos proyectos en colaboración con otras cámaras legislativas, universidades e instituciones. Por un lado, quiere organizar una exposición itinerante de textos jurídicos antiguos en euskera conservados en la Nueva Aquitania francesa, en el Parlamento de Navarra, en el Parlamento Vasco y en las Juntas Generales de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia. Por otro lado, pretende mejorar el "Diccionario Jurídico" lexicográfico vasco. Finalmente, con motivo de la celebración del Centenario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, quiere compartir diversos proyectos con las instituciones que participaron en su creación y con las que han surgido de la evolución de aquellas.

**TERCERO:** El Parlamento de Navarra posee un fondo documental de textos jurídicos en euskera, que puede ser puesto a disposición de la sociedad y de los ciudadanos.



Era berean, euskarazko terminologiako eta parlamentu-lexikoko balio handiko funtsa dauka. Funts hori, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean eta Parlamentuko Arautegian jasotakoa betez, Parlamentuko zerbitzu teknikoek egindako itzulpen lanak gordetzeko beharraren ondorioz sortutakoa da.

**LAUGARRENA:** Bi erakundeek interesgarritzat jotzen dute euskararen lurraldeetako erakundeetan barreiatuak dauden antzinako euskarazko testu juridikoak erakusketa batean ikusgai jartzea, horiei buruz behar diren azalpenak ematea eta erakunde bakoitzari dagokion tokia gordetzea. Era berean, garrantzitsua iruditzen zaie "Hiztegi Juridikoa" ondu eta bateratzen saiatzea, *Hiztegi juridiko-parlamentarioa* egitasmoan pilotutako esperientzia abiapuntutzat hartuta. Hiztegi hori lexikografikoa izanen da eta etorkizunean *Euskaltzaindiaren Hiztegian* izanen du isla. Lan hori bestelako parlamentu eta erakundeekin lankidetzan egingen da.

**BOSGARRENA:** Euskaltzaindia "Lexikoaren Behatokia" izeneko proiektua garatzen ari da, zeinak egungo euskarako zernahi esparru eta formatutan erabilitako 68 milioi testu-hitzet osatutako base bat baitauka. Testu-hitz horiek behar bezala oharreztatuta, etiketatuta eta lematizatuta daude. Proiektu honek bi helburu ditu: alde batetik, kontsultagarri egotea Euskaltzaindiak garatutako ikerlanetan, Akademiak emandako arauak gaurkotzekoetan nahiz etorkizunean aldatzekoetan; eta, bestetik, funtsezko atal bat izatea "XXI. mendeko Euskararen Corpusa" izeneko proiektu zabalago batean, zeinari ekin nahi baitio Euskaltzaindiak etorkizunean. Bi helburu horietan sakondu ahal izateko, garrantzitsua da "Lexikoaren Behatokia" proiektuan sartutako testuen jatorria aberastea eta ugaritzea.

Azaldutako guztia dela eta, honako klausula hauek adosten dituzte:



Así mismo, posee un valioso fondo de terminología y léxico parlamentarios en euskera. Dicho fondo ha surgido de la necesidad de conservar las traducciones realizadas por los servicios técnicos del Parlamento en cumplimiento de lo establecido en la Ley Foral 18/1986 del Euskera, de 15 de diciembre.

**CUARTO:** Ambas instituciones consideran de interés mostrar en una exposición los textos jurídicos antiguos en euskera que se encuentran dispersos en las instituciones de los territorios del euskera, acompañados de las explicaciones pertinentes, y preservar el lugar que corresponde a cada institución. Del mismo modo, consideran importante hacer un esfuerzo por mejorar y unificar el "Diccionario Jurídico", partiendo de la experiencia acumulada en el proyecto del *Diccionario jurídico-parlamentario*. Dicho diccionario será lexicográfico, y en el futuro se recogerá en el *Diccionario de Euskaltzaindia*. El trabajo citado se llevará a cabo en colaboración con otros parlamentos e instituciones.

**QUINTO:** La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia está llevando a cabo el proyecto "Observatorio del Léxico", que cuenta con una base de alrededor de 68 millones de palabras-texto del euskera actual utilizadas en distintos ámbitos y con distintos formatos. Estas palabras-texto están debidamente anotadas, etiquetadas y lematizadas. El proyecto tiene dos objetivos, por un lado, servir de consulta en los trabajos de investigación desarrollados por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia para la actualización o modificación futura de las normas dictadas por la Academia; y por otro, convertirse en parte esencial de un proyecto más amplio denominado "XXI. Mendeko Euskararen Corpusa/Corpus del Euskera del siglo XXI", que pretende abordar Euskaltzaindia en el futuro. Para poder ahondar en estos dos propósitos, es importante enriquecer y ampliar la procedencia de los textos incluidos en el proyecto "Observatorio del Léxico".

Por todo ello, acuerdan las siguientes cláusulas:



## KLAUSULAK

**Lehenengoa:** Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren ezartzea, antzinako euskarazko testu juridikoen erakusketa ibiltaria antolatzeke, izaera lexicografikoko "Hiztegi Juridikoa" egitasmoari ekiteke, bai eta, 2018ko udazkenean hasi eta 2019ko udazkena bitartean iraunen duen Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren inguruabarrean, zenbait ekintza eta agerraldi partekatzeke. Egitasmo horietan, euskararen lurralde guztietako erakundeek, unibertsitateek eta elkarte zein erakundeek parte hartzen ahalko dute.

**Bigarrena:** Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabakitakoari jarraituz, antzinako euskarazko dokumentuen erakusketa ibiltaria antolatzeke, "Hiztegi Juridikoa" egitasmoari ekiteke eta Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren ekitaldiak koordinatzeke ordezkaritza bana izendatu du.

**Hirugarrena:** Euskaltzaindiak konpromisoa hartzen du proposatzen diren egitasmoak burutzeko berariaz antolatzen diren lantaldeen koordinazio-lana egiteke, bai eta Nafarroako Parlamentuaren esku jartzeko lan horien emaitzak eta erabiltzeko baimenak ere.

**Laugarrena:** Era berean, hitzarmen honetako bosgarren adierazpenean jasotakoaren arabera, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuak eskuratzen dizkion testuak erabiltzen ahalko ditu, Akademia garatzen ari den Lexikoaren Behatokiaren proiektuaren basea aberasteko. Kasu horretan, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuari erabilera horren berri emanen dio, eta Nafarroako Parlamentua proiektu horren laguntzaile gisa agertzen ahalko da, hala erabakitzen badu. Erabilera hori eginez gero, proiektu horretan lortutako emaitzak Nafarroako Parlamentuaren esku jartzeko konpromisoa hartzen du Euskaltzaindiak.




## CLÁUSULAS

**Primera:** El objetivo de este convenio es establecer una colaboración entre el Parlamento de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, para organizar una exposición itinerante de textos jurídicos antiguos en euskera, para acometer el proyecto "Diccionario Jurídico" lexicográfico y con el objeto de compartir distintas actividades y eventos que se llevarán a cabo entre otoño de 2018 y otoño de 2019 con motivo de la celebración del Centenario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. En dichos proyectos podrán participar instituciones, universidades y asociaciones de todos los territorios del euskera.

**Segunda:** La Mesa del Parlamento de Navarra, de conformidad con lo acordado en la sesión del 26 de febrero de 2018, nombrará un representante para cada uno de los siguientes eventos: la organización de la exposición itinerante, el proyecto del "Diccionario Jurídico" y la coordinación de los actos que se celebrarán con motivo del Centenario de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

**Tercera:** La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia se compromete a coordinar los grupos de trabajo que se organicen para llevar a cabo los proyectos que se proponen; así mismo, se compromete a proporcionar al Parlamento de Navarra el resultado de dichos trabajos y sus correspondientes autorizaciones de uso.

**Cuarta:** Del mismo modo, según lo estipulado en el punto quinto de este convenio, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia podrá utilizar los textos que le proporcione el Parlamento de Navarra para enriquecer la base de datos del proyecto del Observatorio del Léxico que está llevando a cabo. En ese caso, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia informará de dicho uso, y el Parlamento de Navarra podrá aparecer como patrocinador de dicho proyecto, si así lo decide. En caso de utilizar dichos textos, La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia se compromete proporcionar al Parlamento de Navarra los resultados del proyecto.




**Bosgarrena:** Hitzarmen hau sinatzen den unean, sinatzaileek bina kidez osatutako Jarraipen batzorde bat eratuko da. Hitzarmen hau izenpetu eta hamabost egunetara alde bakoitzak izendatuko ditu Jarraipen batzordeko kideak.

Jarraipen batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez. Lehenbizikoa, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, urteko lan programa adosteko. Bigarren bilkura urte bukaeran egingen da urteko memoria onartzeko. Jarraipen batzordearen bestelako bilkurarik ere egin daitezke, alde batek eskatuz gero.

**Seigarrena:** Lankidetzaren hitzarmen honek hiru urteko indarraldia izanen du; gero, iraupen bereko ondoz ondoko aldietarako luzatzen ahalko da, indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago sinatzaileetako batek salatzen ez badu.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, orrialde bakoitzean errubrika jarritz, idazkiaren hasieran adierazitako toki eta egunean.

**Andres Urrutia Badiola**  
Euskaltzainburua Presidente de la  
Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia



**Quinta:** En el momento de la firma de este Convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento del mismo, formada por dos representantes de cada parte. Transcurridos quince días de la firma del Convenio, cada parte nombrará sus dos representantes en la Comisión de Seguimiento.

Dicha comisión se reunirá al menos dos veces al año. La primera, a la firma de este convenio, para acordar el programa anual de trabajo. La segunda se realizará a final de año, para la aprobación de la memoria anual. La Comisión de Seguimiento podrá realizar otras reuniones a petición de una de las partes.

**Sexta:** Este convenio de colaboración tendrá una vigencia de tres años, y se podrá prorrogar sucesivamente por períodos de idéntica duración, salvo que tres meses antes de que finalice su vigencia sea denunciado por una de las partes.

Como muestra de su conformidad con todo ello, se procede a la firma de dos ejemplares de este convenio, rubricando cada página, en el lugar y la fecha señalados en el encabezamiento.

**Ainhoa Aznárez Igarza**  
Nafarroako Parlamentuko presidentea  
Presidenta del Parlamento de Navarra

